



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Mozorro bat

Badu zerbait biluztasunak. Gatazka usain bat, transgresio doinu bat. Badu zerbait kolokan jartzen gaituena. Gu, mundura biluzik jaio omen ginenok, ospitaleetako bata zabalak jantzi eta ipurdi bistan ibiltzen garenok.

Gogoan dut bazela gizon bat Donostian bizikletan biluzik ibiltzen zena. Klean bere aldamenetik igarotzen zirenek begirada beste norabait bideratuko zuten urduri, edo arretaz erreparatuko zioten, sinpatiaz. Baina erreazio bat sortuko zuen beti. Guri jakin-mina eragiten zigun; ez gizonak, sortzen zuen erreazio neurritz kanpokoak baizik. Zer ote zuen biluztasunak iraingarri egiten zitzaiguna, edo irri murriz bat sorrarazten ziguna, edo odola masailera punpatzen ziguna.

Biluztasun guztiak ez dira berdinak, noski: badira biluztasun baimenduak, biluztasun debekatuak, biluztasun desiratuak eta baita biluztasun ezkutatuak ere. Nor, non eta nola biluz daitekeen; horra gure botere-sistemaren isla. Baina, hortik harago, bada zerbait pertsonen biluztasunean aztoratzen gaituena. Gure biluztasunarekiko konplexua, agian. Edo norbait biluzik ikusi arte ez garela gure jantzien erridikuluaz ohartzen, akaso.

Gure heldutasuna zerbaitek adierazten badu, arropen adierazten dutela sinetsarazi izan didate beti. Arropa batetik besterako aldaketak bizitzako fase-aldaketa adierazten duela derrigor. Zapatiletan belkrotik lokarrietara igarotzea, txandaletatik bakeroetara, jertse txanodunetatik txano gabeetara. Lehenengo alkan-

dorak, lehenengo zapatak. Eta, tarteka, klean sumatuko dugu norbait garaiz kanpo dabilena; 30 urte bete eta tabernara txandala jantzita sartzen dena, gerriko poltsa erantzi nahi ez duena. Eta erdi zuzenean eta erdi zeharka, erdi adar-joka eta erdi serio esango diogu baduela bere adina onartzeko garaia, ezin duela horrela jarraitu, bizitzako arau idatzigabe bat urratzen ari dela.

Eta hala jantziko gara, arropaz eta ohituraz. Umetatik irakatsiko digute gure masail beteetatik tira egiten diguten aldiro irribarre egin behar dugula; bi muxu eman behar direla elkar agurtzen dugunean, edo bostekoa, edo besarkada. Harrema-

naren, generoaren eta norbere rola-
ren arabera egin behar dugula bata
edo bestea. Eta ez gaitezela nahasi;
ez diezaiogula muxu eman behar
diogunari bostekorik eman, edo bos-
tekoa eman behar diogunari muxu-
rik. Hala eman ditugu hamaika mu-
xu eta bosteko ortopediko, hamaika
besarkada izoztu.

**Eta, halako batean, otsaileko azke-
neko asteburuan oskolak erantzi
eta arropa berriz jantziko gara.** Gu
ez garen gu bat edo norbera den bes-
tea gorpuztuko dugu. Idatzi gabeko
arauak urratuko ditugu. Eta gure bu-
ruari galdetuko diogu ea gaurkoa
edo gainerako egunetan jantzten du-
guna, zein ote den mozorroa. •



Zein da mozorroa, gaurkoa edo gainerako egunetan jantzten duguna?

Jon URBE | FOKU